Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko maiatzaren 11, asteazkena — 88 — Miércoles, a 11 de mayo de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## HERNANIKO UDALA

*Iragarkia*

Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Araua erregutzailearen eraginez eta horrekin bat eginez, jendaurrean jartzeko epea igarota, behin betikoa egin da 2022ko otsailaren 22ko Udaleko Osoko Bilkurak hartutako hasierako Zerga Ordenantzen aldaketaren akordioa:

Akordioa da onartzea Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan Ordenantzaren aldaketa: Ordenantzaren 5. artikuluaren 4.5 atala aldatzea (Energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemen inguruko udal zergen hobariak) eta Ordenantzaren eranskinean onartutako 8. tarifa aldatzea eta tarifak aplikatzeko arauak aldatzea.

Aldaturiko testuek honela diote:

*Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan Ordenantzaren aldaketa: Ordenantzaren 5. artikuluaren 4.5 atala aldatzea (Energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemen inguruko udal zergen hobariak) eta Ordenantzaren eranskinean onartutako 8. tarifa aldatzea eta tarifak aplikatzeko arauak aldatzea.*

*5. artikulua.*

4.5. Lehendik dauden eraikinen gaineko eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari, ondorengo kasu hauetan:

A) Ehuneko bat eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatzekotan, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte:

— % 95eko hobaria, zergaren subjektu pasiboak irabazi-asmorik gabeko Energia Komunitate Berriztagarriari lotuta daudenean.

— % 50eko hobaria beste kasuetan.

% 95eko hobaria aplikatzeko, Energia Komunitate Berriztagarrien Entitate baten kidea dela adierazten duen egiaztagiria aurkeztu beharko da hobariaren eskaerarekin batera.

B) A edo B motako energia etiketa bat lortzeko energia birgaikuntza xede dutenak:

— % 85eko hobaria izango dute A kalifikazioa lortzen dutenek.

— % 70ekoa, B kalifikazioa lortzen dutenek.

C) Energia birgaikuntza eta irisgarritasuna barne hartzen dituen higiezinen birgaikuntza integrala xede dutenak. Horretarako, energia birgaikuntzaren xedeak izan behar du A edo B motako energia eraginkortasuneko etiketa bat lortzea. Hobariak izango dira:

— % 95eko hobaria izango dute A kalifikazioa lortzen dutenek.

— % 80koa, B kalifikazioa lortzen dutenek.

## AYUNTAMIENTO DE HERNANI

*Anuncio*

De conformidad con lo establecido en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, una vez transcurrido el plazo de exposición al público del acuerdo provisional adoptado por el Pleno de la Corporación en fecha 22 de febrero de 2022, se acuerda elevar a definitiva:

La modificación de la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras: modificación del apartado 4.5 del artículo 5 de la Ordenanza (Bonificaciones de los Impuestos Municipales sobre Sistemas de Aprovechamiento de Energías Renovables) y modificación de la tarifa 8 aprobada en el anexo de la Ordenanza y de las normas de aplicación de las tarifas.

Se publica el texto íntegro del acuerdo adoptado:

*Modificación de la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras: modificación del apartado 4.5 del artículo 5 de la Ordenanza (Bonificaciones de los Impuestos Municipales sobre Sistemas de Aprovechamiento de Energías Renovables) y modificación de la Tarifa 8 aprobada en el anexo de la Ordenanza y de las normas de aplicación de las tarifas.*

*Artículo 5.*

4.5. Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras sobre Edificios existentes, en los siguientes supuestos:

A) Cuando se establezcan sistemas que permitan el aprovechamiento térmico o eléctrico de una centésima de energía solar u otras energías renovables. En caso de aplicación de esta bonificación, las instalaciones de generación de calor deberán contar con colectores o sistemas de calefacción y agua caliente sanitaria (ACS) homologados por la Administración competente, la bonificación será:

— Bonificación del 95 % cuando los sujetos pasivos del impuesto estén vinculados a la Comunidad Energética Renovable sin ánimo de lucro.

— Bonificación del 50 % en otros casos.

Para la aplicación de la bonificación del 95 %, la solicitud de bonificación deberá ir acompañada de un certificado de pertenencia a una Entidad de Comunidades Energéticas Renovables.

B) Los destinados a la rehabilitación energética para obtener una etiqueta energética de clase A o B. La bonificación será:

— 85 % quienes obtengan la calificación A.

— 70 % para los que obtengan la calificación B.

C) Los destinados a la rehabilitación integral de inmuebles que incluyan la rehabilitación energética y la accesibilidad. Para ello, el objetivo de la rehabilitación energética debe ser obtener una etiqueta de eficiencia energética tipo A o B. La bonificación será:

— 95 % quienes obtengan la calificación A.

— 80 % para los que obtengan la calificación B.

EK\CV GAO-I-2022-02762

D) % 95eko hobaria, Udalerriko auzo edo eremuetan energia berriztagarriak sartzeko birgaikuntza integraleko proiektuen testuinguruan egiten diren obrentzat.

Hobaria birgaitze-obraren xede den instalazioan egindako inbertsioari lotuta dago. Horrela, ondoko baldintzak hauek ezartzen dira inbertsio horren inguruan:

— Hobaria ez zaio aplikatuko araudiaren arabera derrigorrez inbertitu behar diren kopuruei. Hobaria aplikatuko zaio derrigorrezkotik gora egindako atalari.

— Instalazio berriztagarria ezartzeari lotutako inbertsiotzat hartuko dira ondorengo gastuak: materialaren kostua, barne hartuko direlarik instalazioa osatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak (esaterako, FV sorkuntza panelak, kableatu elektrikoa, inbertsoreak...); eta obra edota instalazioetatik eratorritako nahitaezko kostuak (igeltserotza, iturgintza, etab.).

Inbertsio kostutik kanpo utziko dira ez direnak beharrezkoak instalazioa gauzatzeko eta ez dutenak helburu zuzen instalazioaren burutzea.

— Baldin eta instalazioaren atal bat derrigorrezkoa bada araudiaren arabera, elementu amankomunen gastua modu proportzionalean kalkulatuko da, derrigorrezko eta gehigarrizko atalen potentzien arabera.

— Hobaria aplikatu ahal izateko, interesdunak inbertsioari lotutako gastua modu banakatuan, partidaz partida, aurkeztu beharko du.

ERANSKINA

*8. tarifa aldatzea eta tarifak aplikatzeko arauak aldatzea.*

Tarifa:

— Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera batekin lotutako Hirigintza-jarduera oro, betiere jarduera hori nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueraren titularraren izenean badago: 12.000 eurotik gorako kostua: 1,65.

Tarifak aplikatzeko arauak:

1. 1,65eko bi tasa murriztuak aplikatzeko, nekazaritzako ustiategitzat hartuko da Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan erregistratutako ustiategia.

Sagardotegien kasuan, soilik aplikagarriak izango zaio tarifa hau Sagardo ekoizpenari lotutako Hirigintza-jarduerari.

2. 9. tarifa aplikatzeko, dedikazio osoa dagoela ulertuko da etxebizitzan erroldatutako pertsonen diru-sarrerak nekazaritza-ustiategitik bakarrik datozenean.

3. Kontuan hartuko da obra handia eta obra txikia bereizteko, indarrean dagoen udal Hirigintza-araudia.

4. Autolikidazio erregimenaren barne kudeatuko da.

Hori guztia Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan agindutakoa betetzearren argitaratzen da, guztiek honen berri izan dezaten eta arau horretan aurreikusitakoak eragina izan dezan.

Aipatutako Foru Arauaren 18.1 artikuluan xedatutakoekin bat, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzak finkatzea eta aldatzea onesten zuten erabakien aurka, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren dagokion Salaren aurrean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dute bi hilabeteko epe barruan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

D) Bonificación del 95 % para las obras que se realicen en el contexto de proyectos de rehabilitación integral para la introducción de energías renovables en barrios o zonas del Municipio.

La bonificación está vinculada a la inversión realizada en la instalación objeto de la obra de rehabilitación. Así, se establecen las siguientes condiciones en relación con dicha inversión:

— La bonificación no será de aplicación a las cantidades que, de acuerdo con la normativa, deban invertirse obligatoriamente. La bonificación se aplicará a la parte que exceda de la obligatoria.

— Se considerarán inversiones vinculadas a la implantación de la instalación renovable los siguientes gastos: el coste del material, incluyendo todos los elementos necesarios para completar la instalación (por ejemplo, paneles de generación FV, cableado eléctrico, inversores...); y los costes obligatorios derivados de obras y/o instalaciones (albañilería, fontanería, etc.).

Se excluirán del coste de o los que no sean necesarios para la ejecución de la instalación y no tengan por objeto la correcta ejecución de la misma.

— En el caso de que una parte de la instalación sea obligatoria de acuerdo con la normativa, el gasto de los elementos comunes se calculará proporcionalmente en función de las potencias de las secciones obligatoria y adicional.

— Para poder aplicar la bonificación, el interesado deberá presentar el gasto asociado a la inversión de forma individualizada, partida por partida.

ANEXO

*Modificación de la tarifa 8 y de las normas de aplicación de las tarifas.*

Tarifa:

— Toda actuación urbanística relacionada con una actividad agropecuaria siempre que este a nombre del titular de la actividad agropecuaria: coste superior a 12.000 euros: 1,65.

Normas de aplicación de la tarifa:

1. A efectos de la aplicación de los dos tipos reducidos de 1,65, se entenderá por explotación agraria la registrada en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En el caso de las sidrerías, esta tarifa sólo será aplicable a la actividad urbanística vinculada a la producción de sidra.

2. A los efectos de la aplicación de la tarifa 9, se entenderá que existe dedicación plena cuando los ingresos de las personas empadronadas en la vivienda procedan exclusivamente de la explotación agraria.

3. La separación entre obra mayor y obra menor se realizará teniendo en cuenta la normativa urbanística municipal vigente.

4. El Impuesto se gestionará dentro del régimen de autoliquidación.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el art. 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el expresado precepto.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 18.1 de la citada Norma Foral, contra los expresados acuerdos aprobatorios de fijación y modificación de tipos, cuotas, tarifas y Ordenanzas los interesados podrán interponer recurso Contencioso-Administrativo ante la correspondiente Sala del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente hábil al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2022-02762

Dena den, eta aipatutako arauak baimentzen duen bezala, interesatuek hautazko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko Administratibo Foralaren aurrean, administraziorekiko auzitarako bideari ekin aurretik, argitalpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera hasita hilabete bateko epean.

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanez gero, euskarazko testuak izango du balioa.

Hernani, 2022ko apirilaren 21a.—M.ª Isabel Sanchez Perez, Ogasun zinegotzi delegatua. (2762)

Ello no obstante y como autoriza el precepto citado, los referidos interesados podrán interponer, con carácter potestativo y previamente a la vía Contencioso-Administrativa, reclamación ante el Tribunal Económico Administrativo Foral de Gipuzkoa en el plazo de un mes contado a partir del siguiente día hábil al de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de las expresadas publicaciones.

En el caso de que haya discrepancias o incoherencias entre la versión en euskera y castellano prevalecerá la versión en euskera.

Hernani, a 21 de abril de 2022.—La concejala delegada de Hacienda, M.ª Isabel Sanchez Perez. (2762)